

Hezkuntza-esperientzia pilotu bat
garatzeko lan-materiala

Herenegun!

Unitate didaktikoa

Memoria Hurbilari dagokion aldia
(1960-2018) DBHko 4. mailako eta
Batxilergoko 2. mailako Historia
irakasgaiari sartzeko proposamena

4. koaderno

Dokumentazio osagarria



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

1. Historia eta memoriari buruzko testu iradokitzaile batzuk

Gai delikatu baten aurrean gaude. Memoria historikoak edota hurbilak gizarte zientzietako saioetan izan behar duen presentzia dago eztabaidagai, eta ez da kontu erraza. Hemen hautatu diren testuak baliagarri izan daitezke irakasleentzat, eztabaida honen inguruko alderdi eta ñabardura desberdinak ezagutu ahal izateko. Eta batez ere, memoriaren eta historiaren arteko erlazioari buruz.

1.1. Memoria eta historia ez dira gauza bera

Memoria historikoarena kontzeptu ideologiko eta historiografiko berri samarra da eta Pierre Nora-k formulatutako kontzeptua dela esan genezake, honako hau definitzeko: giza-taldeen euren iragana -erreal nahiz irudikatua- bilatzeko egiten duten ahalegin kontzientea, bereziki balioetsi eta errespetatzen dutelarik hura.

“Memoria eta historia ez dira gauza bera. [...] Memoriaren erregistroa eta historiaren erregistroa zeharo desberdinak dira, nahiz eta argi dagoen bien arteko harremana estua dela eta historiak memorian duela oinarria edo sorburua. Iraganean bizi izandako edo irudikatutakoaren oroimena da memoria. Horregatik, memoria beti da gertakariak bizi izan zituzten edo bizi izan zituztela uste duten izaki bizidunen taldeena. Memoria, izatez, afektiboa da, emozioei lotua, eraldaketei irekia, hurrenez hurrenko eraldaketen kontziente ez dena, manipulazio ororen mende dagoena, luzaroan lozorroan egoteko gai dena eta bat-batean esnatzeko. Memoria beti da fenomeno kolektiboa, nahiz eta psikologikoki banaka bizitzen den. Aitzitik, arrastoak utzi baditu ere, existitzeari utzi dionaren eraikitze beti gatazkatsua eta osatugabea da historia. Arrasto horiek abiapuntu hartuta, kontrolatuta, elkar gurutzatuta eta konparatuta, historialaria gertatu zena berrerraten saiatuko da, eta batez ere, gertakari horien azalpena osotasun batean ematen.

Pierre Nora

1.2. Historia ez den historia: memoria historikoa deitzen dena

Azken urte hauetan, zenbait herrialdetan ari dira memoria historikoa delakoa berreskuratzeaz eta ikasleen irakasgaien artean sartzeaz hitz egiten. Baina gauza bat da ikasgeletara delako memoria historiko hori eramatea, eta beste bat historia behar bezala irakastea.

Memoria eta historia desberdin beharra dago eztabaida zientifikoaren ardatzean. Iritzi onartuenaren arabera, memoria historikoa, oroimena den aldetik, prozesu erabat indibiduala da, biografiakoa. Ezin da, hortaz, ezagutza historikotzat jo, metonimiaz ez bada. Dena den, kontakizun indibidual batzuk historia zientifikoa deitzen dugunarekin jar daitezke harremanetan, baina haren parekotzat jo gabe.

Izan ere, memoriak ez dauka ia zerikusirik historiarekin, eskalarekin besterik ez bada ere. Beraz, historialarien artean nagusi den iritziaren arabera, historia zientifikoa eta memoria historikoa ez dira gauza bera. Horren harira, Gonzalo de Amezolak dio historialariak egiten duen ekarpena handia dela, ez dela bakarrik memoria berreraikitzea, baizik eta “normalizatzea” ere.

Eta Jacques Le Goff aipatuta, honela dio:

“Normalizazioaz” hitz egiten dudanean, zentzu positiboan egiten dut. Inspiratzailea izateko, memoriak ez du oroimen perbertitua, desitxuratua, manipulaturakoa izan behar; ezinbesteko baldintza da historiaren bitartez egiaztatua eta pentsatua izan dadila... (Amézola, 2000)

Historia zientifikoa memoria birrindu eta irentsi egiten du ezagutza ekoizteko; baina memoriak ez dira birrintzen denboran atzera egiten delako, baizik eta datuari, oroitzapenari, oroimenari, az-tarnari edota iturriari metodo eta teoria historikoa aplikatzen zaielako. Gertakariak ez dira sekula gogoratzen benetan gertatu ziren bezala.

Halere, badira pentsalariak memoria historikoa aldarrikatzen dutenak “historia ofizialak” idazterakoan gertatzen diren manipulazioei aurre egiteko. Ahanzturak, batzuetan, errepresioak edo diktadurak ezkutatzeko erabiltzen dira, eta, aldi berean, baliagarri egiten zaizkie XX. mendean gertatutako krimen larriak eta gero barkamenak eta amnistiak modu interesatuan defendatu dituztenei. Horrela, sakondu egiten da Ricoeur-ek “ahantzura zoriontsua” deitzen duen horretan edota herri bat bere historiako trauma kolektibo handiekin adiskidetzea. Zentzu horretan, oroitzapenaren eta memoria sozialaren “erabilera inteligentea” proposatzen du askapenerako. (Ricoeur, 2003)

Bestalde, Todorov-en aldarrikapenaren arabera, sufrimenduaren gainditzea bereganatu behar du memoria kolektiboak etorkizunean aurrera egin ahal izateko; kontua ez da ondoezari eustea, baizik eta irteera bat ematea memoriari, iraganeko zoritxarreko gertakizunek eragindako atsekabearen karga arintzeko, alegia. Oroitzea edo ez oritzea baino haratago doa memoriaren arazoa, eragina du gizarteengan eta, batez ere, jasandako doluak asimilatzeke edo lantzeko moduetan. Nahiz eta ohar hau egiten duen:

Guztiek daukate iragana berreskuratzeko eskubidea, baina ez dago arrazoirik, besterik gabe, memoriarekiko kultua eraikitzeke; memoria sakralizatzea da hura antzu bihurtzeko beste modu bat. (Todorov, 2000)

Memoria soziala berreskuratzeak, Ricoeur-ek edo Todorov-ek aldarrikatzen duten zentzuan, helburu argia dauka: trauma historikoak sufritu dituzten gizarteak onbideratzea.

Hezigarria izan daiteke ikasleak «ahantzura» interesatuari uko egiteko prozesuetara biltzea. Baina, kontzientzia soziala osatzeko eta herritarren heziketa gisa zentzua izan dezaketen jarduerak horiek eta Historia gizarte zientzia gisa probetxuz irakastea, ez dira nahastu behar (Pomian, 1999).

Ondorio bezala, esan daiteke iraganeko gertakarien memoriak suspertu egiten duela pentsamendu historikoa, hura ulertzeko, testuinguruan jartzeko eta interpretatzeko erronka ezartzen baitio, eta ondorioz, azalpen bat lantzeko. Beraz, bigarren hezkuntzan Historia erakusten diharduten irakasleek kontuan hartzeko modukoa da.

Joaquín Prats (koord.). “Didáctica de la Geografía y la Historia”. Graó, 2011

1.3. Memoria guneak

“Memoria historikoa” esamoldeak aurkitu du bere tokia gure artean, baina gerra zibilean gertatutakoari mugatua eta, hain justu, frankismo eta trantsizio garaian (trantsizioak oraindik irauten duela ematen du) ezkutatua edota behar besteko dibulgaziorik izan ez zuenari mugatua. Galtzaileen eta galtzaileei buruzko kontakizuna izanik, azkenean hitz eztabaidagarria bihurtu da, baita paradoxikoa ere batzuetan. Eztabaidagarria zeren aipatze hutsak konfrontazioa sortzen du memoria historikoa egia eraikitzea dela ulertzen dutenen eta eurek edota gurasoek egin zutenaren epaike-ta pertsonaltzat jotzen dutenen artean. Eta paradoxikoa zeren, kolektiboa den aldetik, memoriak taldea kohesionatzen du; eta historiak multzoaren banakako behaketa du elikagai. Edota Pierre Nora historialari frantsesaren esanetan, “memoriaren sorburua memoriak berak batuta mantentzen dituen taldeetan dago. Historia, aldiz, bakoitzarena da eta ez da inorena, eta beraz, bokazio unibertuala dauka”.

Memoriaren eta historiaren arteko topagune bat bilatu nahian, Pierre Norak “Les lieux de mémoire” (memoria guneak) izeneko proiektu historiografikoa abiarazi zuen. Hasteko, 120 historialariri egin zitzairen deialdia. Maila handikoak eta gehienak frantsesak ziren obra idazten lagundu zutenak. 128 sarrera ditu lanak eta hiru zati handitan dago banatua.

Noraren esanetan, “Frantziak bere gatazkak termino historikoetan sortzeko joera izan du eta bere historia termino politikoetan”. Eta orijinala badirudi ere, ez da hainbesterako gurean gertatzen dena ikusita, alegia, historia erabiltzen dela aurkariaren kontrako baliabide politiko bezala eta politika historian oinarritzea nahi izaten dela. Eta horrek, zoritxarrez, memoriaren gerrak eragiten ditu,

non "iragan faltsu batek benetako iragana ordezkatzeko duen orainaren arrazoiak direla eta", Tony Judt-en esanetan (Sobre el olvido siglo XX). Norak 1992an amaitu zuen lana: zazpi liburuki eta 5.600 orrialde guztira. Orduetik dago finkatua "memoria gunea"-ren kontzeptua, alegia, "edozein entitate esanguratsu, materiala zein ez materiala, giza borondateak edo denborak komunitate baten memoria-ondarearen elementu sinboliko bihurtu duena". Horrela bada, "guneak" ez lirateke bakarrik lekuak edo instalazioak izango, baizik eta kontzeptuak, hitzak eta gertaerak ere bai, identitate-sinboloak, hain zuzen ere.

Gurean, memoria guneak jostearen zeregina adituen esku geratu beharko litzateke. Aurreko artikuluko batean, honako hau idatzi nuen: "Euren historia nork idatzi ez daukaten herriak kondenatuta daude historia horren manipulaziora (...), beraz, ezinbestekoa da komunikabide propioak izatea, eta gure memoria guneak elkartuko dituzten historia dibulgatzaileak".

Txema Montero. Deian argitaratua, 2011/07/04

1.4. Estatua eta memoria

(...)

Egia da hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran errepublika, gerra, diktadura edo trantsizioari buruzko era askotako argitalpenak agertu zirela, laurogeiko hamarkadan jarraipena izan zutela eta nabarmen hasi zirela mende aldaketarekin. Eta egia da ezagutzaren adar desberdinetatik kausalitatearen, prozesuen eta eragileen inguruko azalpenak eman dituztela, bakoitzak bere formatuetan, ediziotik hasi eta zinemara iritsi arte, sorkuntza artistikotik igarota. Ekoiztako guztia herritar orok dauka eskura. Alabaina, errealtate hori erabiltzea gizartean ez zela ez isiltasunik ez eta ezjakintasunik egon argudiatzeko, zuhurtziagabekerira iristen den inozotasun historiografiko handia da.

Lehenengo, ezagutza historikoa eta ezagutzaren sozializazioa nahasten dituelako eta ezagutza erakundearen diskurtso publikotik kanpo geratzen den erantzukizun indibidual batera mugatzen duelako, alegia, ekoizpen zientifikoa edo kulturala nahitaez behar ez duena. Bigarren, begien bistakoa dena gorensten du: historiaren eta memoriaren arteko aldea, baina elkarrekiko termino kontrajarri eta baztertzailerik gisa aurkezten dituelarik. Andres Huyssen-ek oso ondo planteatu du aurreiritzi horren inguruko auzia:

Arazoa ez da konpontzen memoria serio bati aurrez aurre memoria hutsal bat jarrita, historialariak batzuetan egin duten bezala memoriari *tout court* historia aurka jarrita, hau da, gauza subjektibo eta hutsalaren memoria historialariak bakarrik gauza serio bihurtzen duena [...]; horrek errepikatu baino ez luke egingo kultura modernistaren altuaren eta baxuaren inguruko dikotomia zaharra.

Hirugarren, historiaren eta memoriaren arteko mendekotasun harremanak proposatzen ditu, baina benetan ematen direnak osagarritasun-harremanak dira. Ricoeur-ek narratiba osagarriez hitz egiten du, bakoitza errealtatearen ezagutzara hurbiltzeko estrategia propioak dituen, eta aberastu egiten direnak baina ez eratu. Laugarren, alde batera uzten du historiak eta memoriak partekatuta egiten dituztela botere-eremu indartsua, iraganaren kudeaketa eta etika publikoen kontrola, zientziak ez baitauka horien monopolioa, gaiari gehien dagokion gauza bada ere. (...)

Bosgarren, historia eta memoria (historialaria eta lekukotasuna) lehian jartzea jarrera desegokia da, ulertzeko modu biek logika desberdinak dituztelako. Beraz, memoria historiaren tresnekin fiskalizatzea ez da egokia, historia egia ofizial eta amaituaren eramaile gisa sailkatzen baitu eta ez du den bezala erabiltzen: eraikuntza egiaztatua eta egiazta daitekeena, eta ondorioz, irekia. Ikusiko dugun moduan "biktimaren politikek" lortzen badute transmititutako memoria, ondarea, beste esanahi batez hornitzen eragozte, izango da egia historikoaren (egia amaitua eta, beraz, ofiziala) erretorika erabiltzen dutelako, euren diziplinan inoren beharrik ez dutela garbi uzteko, prozesu konplexuak ulertu ordez, ziurtasunak ezartzera mugatzen diren historialarien laguntzarekin,

alegia. Seigarren, ezagutza historikoa eta beharizan etikoa (subjektiboa edota kolektiboa) nahasten ditu. Gertaerak isildu eta ahantzi egin zirela gezurtatzeko egia historikoaren ekoizpenean eta zabaltzeko modu konbentzionaletan oinarritutako argumentuak ez du onartzen - edo ez da ohar-tzen- "ahazte" eta "isiltasuna" adierazpenak ez daudela substantibatuta, baizik eta aintzatespen publikoa eta erakundeen jarrera hartze eta jarduketa eskatzeko metafora bat baino ez direla. (...)

Ricard Vinyes: La memoria del Estado 32-34 orr.
Hemen: Ricard Vinyes (2009) *El Estado y la memoria*. RBA arg. Bartzelona.

1.5. Gogora sortzeko legearen zioen azalpeneko laburpenak

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko 4/2014 Legearen zioen azalpenean dago bilduta memoriari buruzko politika publikoa zehazki zer den aztertzen duten hausnarketa interesgarrien multzo bat. Testu horiek historiaren eta memoriaren arteko aldea ulertzen lagunduko dizute.

(...) Memoria demokratiko bat gestionatzeak lotura zuzena du askatasuna, berdintasuna eta giza duintasuna bezalako balioak lehengoratzearekin eta bultzatzearekin. Herritarren eskubi-dea da memoria, ez betebehar bat. Gogoeta kritiko bat elkarbanatzeko borondateari erantzuten dio, giza eskubideen urraketa iraunkor eta sozialki traumatikoa ekarri zuten gure historia berriko gertaerei buruzko gogoeta kritiko bat.

Azkeneko ehun urtean, euskal gizarteak gutxienez indarkeriak markatutako lau esperientzia traumatiko sufritu ditu: Gerra Zibila, diktadura frankista, ETAren terrorismoa eta legez kontrako antiterrorismoak.

Ezberdinak izanik ere, badute laurek lotura komun bat: bidegabeki jasandako sufrimendua, eta egoera okerrenetan ere bizikidetzaren demokratikoa eta giza eskubideen defentsan, bakean eta askatasunean oinarritutako gizarte bat eraiki eta defendatzeko ahalegina.

Balio horiek garrantzi handiko ondare demokratikoa dira, gorde eta transmititu beharrekoak memoriaren eta bizikidetzaren politika publiko egoki baten bidez. Euskadin jasandako sufrimendu bidegabearen memoria gordetzea da egin daitekeen zerbitzurik onena etorkizuneko bizikidetzaren duinago, justuago eta libreago bat izan dadin, baldin memoria hori era barneratzailean eta kausen berezitasuna haiek beren artean parekatu gabe mantenduz gordetzen bada; zerbitzurik onena irizpide kritiko eraturiko gizarte batentzat, gizarte sendo batentzat gerraren, totalitarismoaren, terrorismoaren eta edozein indarkeriaren edo giza eskubideen urraketaren mehatxuaren aurrean.

(...) Memoriak ahalbidetzen digu gertatutakoaren oroipena presente izatea. Memoria gertaera objektiboen erreferentzian oinarritzen da, oroitzen denaren parte diren gertaera objektiboetan, baina modu subjektiboan eratzen da pertsona bakoitzarengan. Ez dago bi memoria berdinen berdinarik. Memoria publikoa, beraz, eraikitze gatazkatsu, dinamiko eta polidrikoa da.

Memoriaren politika publiko batek bi printzipio handi konbinatu behar ditu, batera ekarri. Alde batetik, erantzukizun etiko eta politikoa bereganatu behar du: oroitzea, oroitzapena egitea, elkarbanatzea eta transmititzea memoria demokratiko bat. Beste alde batetik, parte-hartzea eta pluralismoaren adierazpena bideratu behar ditu memoria eratzean.

Memoriaren arteko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du: babestu behar ditu gutxieneko demokratiko batzuk. Urraketa-kategoria berdinen biktimek duten eskubide-berdintasunaren printzipioa aintzat hartuz, memoria ezin da erabili gertakariak baztertzeko eta erkatzeko. Ezta terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketaren ezein adierazpide legitimatuko lukeen historia bat berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren goreneko baliori begira egiten baita, egia eta justizia helburu, baita balio horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere.

(...) Memoriaren eta bizikidetzaren politikaren eginkizun nagusia ez da sufrimendua eguneratza mugatzen, mina ez baita balio bat, eta ez da ulertu behar arrazoia ordezkatzeko duen oroimenezko aginpide gisa. Sufrimendua esperientzia bat da eta haren lekukotasuna memoria demokratikoaren parte da. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eginkizun nagusiak erreskatatu, nabarmendu, oroitu eta transmititu behar ditu indarkeriazko gertakari larrien erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna... defendatzeko borrokatu ziren balio eta ahalegin demokratikoak.

Haren lehen helburua da herritarren arteko elkarrizketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta adieraztea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoetan elkarrekin bizi diren memoriaren arteko elkarrizketa bat. Haren azken helburua da laguntzea agora bat eraikitzen, dinamikoa eta emankorra, plaza publiko bat, balioen topagune sozial bat, berdintasun maila handiagoak lortzeko. Askatasuna eta demokrazia.

Horiek horrela, memoriaren eta bizikidetzaren politika publikoa ez da biktimei begira bakarrik egiten, herritar guztiei begira baizik, haien erantzukizuna eskatzen baitu. Horrela egiten ez bada, biktimak bakarrik gelditzen dira haien oroitzean eta biktima izan ez direnak memoria kolektibotik kanpo geratzen dira. (...)Banaketa horrek egoera horretan ixten du biktima, betiko itxi ere, eta ikusle hutsa bihurtzen du herritarra.(...)

Memoriaren eskubidea gizarte osoari dagokio, herritarrak dira-eta historiaren, oroipenaren eta memoriaren gordetzailerik eta oinordeko naturalak. Ahazteak ezinezko egiten du errekonozimendua, iraganaren bertsio bat inposatzen du eta hutsune etiko bat sortzen du. Haren aurrean, herritarrek memoria demokratikoaren ezagutza historiko ez-neutral bat izateak bidea ematen du irizpide propioak lortzeko eta, gainera, libreago egiten ditu herritarrak.

(...) Aldarrikapen unibertuala inspiratu zuten giza eskubideen eta balioen sustapena eta defentsa tresna baliotsuenetakoa bat izango da Euskadin bizi izandako indarkeria traumatikoko esperientziak berriz gertatuko ez direlako bermea lortzeko.

(...)

2. Eskura ditugun metodologiak

Jorratuko diren gaietan ikasleen parte-hartze eta inplikazio aktiboa da ikas-material honetan bildutako edukiei heltzeko metodologiarik onena. Horretarako, parte hartzeko dinamikak eta talde-lana egingo da, baita haiek planteatzen dituzten erronka etikoei buruzko hausnarketa ere.

Taldea da dinamika parte-hartzaile ororen abiapuntua eta oinarrizko printzipioa. Talde batean pertsonak dira garrantzitsuenak. Gero etorriko da gainerako guztia: helburuak, arauak, rolak, gatazkak, baina hori guztia, taldea osatzen duten pertsonen arabera izango da. Behin osatuta dagoela, taldearen funtzionamendu onerako zenbait baldintza bete beharko dira:

- Kide guztiek helburu bera izatea.
- Taldeko kide guztien batasuna sustatzea, dinamizatzailerik ere (irakaslea) barne hartuta, jakina.
- Jokabide arauak ezarri.
- Komunikazioa naturala erraztu guztien artean.
- Besteekiko enpatia erakutsi.
- Argi eduki taldea pertsonak osatzen dutela, eta taldekidearen lekuan jartzeko gai izan beti.
- .../...

Helburuarekiko solidarioak izan behar dute kideek eta taldea lehenetsi norbere interesen aurretik. Taldeak funtzionatzeko ezinbestekoa da hori, tentsioak eta gatazkak saihestu egingo baititu eta taldea osatzen duten kideen arteko kohesioan lagundu.

Iturria: <http://www.gestionparticipativa.coop/portal/images/doc/LIDERAZGOMERCADEO.pdf> (kontsulta-data: 2018ko martxoaren 16a)

Saioetan irakasleak egingo duen dinamizatzailerik lana nabarmentzeko da: galderak planteatu, ondorioak ateratzen, jarrerak hurbiltzen eta ikuspuntu desberdinak ikusarazten lagundu. Hori guztia, taldeko bat besterik ez dela erakusteko gai izanda, unean-unean bere posizioa zein den jakinda, baina, aldi berean, taldetik gertu egonda.

Jarraian bildu ditugu parte hartzeko zenbait metodologia, gai gatazkatsuak eztabaidatzera bideratuak. Eztabaidatu beharreko gaiaren arabera eta gaia landuko duten ikasleen ezaugarrien arabera, gehien komeni den metodologia hautatuko du irakasleak.

Parte hartzeko dinamikak duten balioa eta indarra ezagututakoan, aldi berean ikasten da ez direla beti antzeko teknikak erabili behar monotonia saihestu nahi bada: metodologia-aniztasuna eta motibazioa oso lotuta daude.

2.1. Flipped Classroom (Klasea behekoz gora jarri)

Kostua: ertaina

Etekinak: altua

Urte batzuetatik hona, Flipped classroom-en kontzeptua, hau da “klasea behekoz gora jartzea” gero eta onarpen handiagoa ari da hartzen irakasleen artean. Funtsean, eredu didaktiko honetan ikasgela da arazoak konpontzeko eta zailtasunak gainditzeko, kontzeptuak finkatzeko eta, batez ere, ikasleak euren ikaskuntzarekin konprometitzeko jarduten den (ikasleek ikasleekin, ikasleek eta irakasleek) tokia.

Ohiko klasearekiko alde nabarmena da. Ohiko klaseetan irakaslea da oinarria; izan ere, (1) irakasleak hautatzen du dena delako irakasgaiaren edukia, (2) irakasleak zuzentzen du ikaskuntza, eta (3) irakasleak finkatzen ditu ikasleen jardute-irizpideak. Zentzu horretan, Flipped Classroom

urrutiago iristen da, gure ikasleengan eragin handiagoa izateko gai da. Funtsean, ikaskuntzaren eta ikasleek gelan izango duten paperaren oso bestelako ikuspegi bat dago:

- Ikaskuntza edozein tokitan eta edozein unetan emango da, ikasleen esperientziak eta ikaskideekin nahiz irakasleekin izandako solasaldiak oinarri hartuta.

- Aurreikusi ezina da ikaskuntza, zerikusi gehiago du ikasleen hausnarketa eta ikerketarekin edozein programa edo curriculumen izaera itxi eta behartzailearekin baino.

Gelan denbora optimizatzeko, ikasgelatik kanpo egin daitezkeen jarduerak egingo ditu ikasleak (bideoak ikusi, testu bat irakurri, eta abar). Horrela, “etxerako lanen” eredia apurtzen da. Eta gelan pasatzen den denbora lan egiteko, esperimintatzeko, eztabaidatzeko, irakaslearekin zalantzak argitzeko, eta abar baliatzen da.

Ikasleek jardungo dute bakoitzak bere denborak eta erritmoak egokituz, bakoitzak bere gaitasunak eta ikasteko moduak aprobetxatuz (ez dira denak bat etortzen gela berean). Hau da, ikaskuntza modu pertsonalizatuan egiten da.

Gelan bakoitzak (irakasleak eta ikasleak) duen papera birplanteatzeko balio du, hobetzeko, ohiko gelaren ereduarekiko berrikuntza bat egiteko. Teknologia ezinbesteko elementua da, irakasleari ikaskuntzarekin lotutako esperientziak antolatzen (ez zuzentzen) lagunduko dio, ikasleak animatuz eta haien lana gainbegiratu eta baloratuz, betiere.

Irakasleak sortu edo egokitutako edukietara sartzeko internetera konexioa duen edozein gailu baino ez du behar ikasleak. Esan beharra dago, Flipped Classroom bideoen edo aurkezpenen bitarteko irakaskuntzarekin lotzen bada ere, hori baino askoz ezaugarri gehiago dituela, ez baitira ahaztu behar eredu horrek dituen oinarri metodologikoak eta prozedurarekin lotutakoak. Erabiliko ditugun erremintak, aplikazioak eta teknologia, edukia banatzen eta, lehen esan dugun bezala, parte-hartzea eta esperimintazioa errazten lagunduko dizkiguten bitartekoak baino ez dira.

2.2. Phillips 6-6

Kostua: baxua

Etekinak: altua

Askotariko baliabideak bilatzen ari garenean, gauza berriak bilatzen ibiltzeko joera daukagu etengabe. Eta ahaztu egiten zaigu badirela teknika zaharrak aspaldi erakutsi zutenak eraginkorrak direla.

“Phillips 6-6” teknika, esaterako, talde handietan erabiltzekoa da, helburuak honako hauek baldin badira: ahalik eta parte hartze handiena, iritzi desberdinak bilatzea (denbora gutxian) eta laburpena egiteko beharra.

Talde handia 6 kideko azpitaldeetan zatitzen da. Talde bakoitzak sei minutu izango ditu gai bati buruz eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko. Gero, talde handian aurkeztuko dituzte ondorioak.

Bideratzaileak teknika eta jarduteko modua azalduko dizkie azpitalde bakoitzari; dena delako gaiaren inguruko galderak egingo ditu, eta denbora kudeatuko du. Garaiz abisatuko du ondorioak lotuta edukitzeko.

Azpitalde bakoitzak koordinatzaile bat eta idazkari bat izendatuko du. Erronda bat egin eta bakoitzak bere iritzia emango du, labur-labur. Iruzkin laburrak ere onartuko dira. Adostutako laburpena idazkariak egingo du. Talde handian, idazkari bakoitzak bere laburpena aurkeztuko du eta azken laburpena prestatuko da.

Teknika hau malgutasunez erabiltzekoa da. Gaiaren eta ikasle kopuruaren arabera, aldatu egin daitezke denbora-tarteak edota azpitaldeen kide kopurua. Azken laburpena egiteko ere, beste

teknikaren bat erabil daiteke, baldin eta desadostasunak handiak badira edota gairen bat oso irekia geratu bada. Adibidez, idazkariak bildu eta ondorioak presta ditzakete talde handiari aurkeztu aurretik. Beste aukera bat litzateke “eztabaida mailakatua” bultzatzea, hau da, berriz ere taldeak sortu “gori dauden gaiak” eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko.

2.3. Eztabaida gidatua

Kostua: ertaina

Etekinak: altua

Taldean eta gai baten inguruan ideiak eta informazioa elkartrukatzeko dira era informalean, eta irakasleak dinamizatzen eta gidatzen du. Badu antzekotasunik klase batekin non ikasleek galderak eginen parte har dezaketen. Hona ezaugarriak:

- Eztabaidatzeko hautatu den gaia eztabaidagarria izango da, ikuspegi edo interpretazio desberdinak sorrarazten dituena.
- Eztabaidaren dinamizatzailerak prestatuta izango ditu zenbait galdera.
- Ikasleek aurretik ezagutuko dute gaia: azalpenak, testu-liburua, bideoak, eta abar.
- Eztabaida taldean egin daiteke, betiere handiegia ez baldin bada.

Honako hau da dinamika parte-hartzaile horren prozesua:

1. Irakasleak sarrera labur bat egingo du gaia kokatzeko.
2. Galdera bat egingo die ikasleei eta parte hartzen gonbidatu. Inork ez badu hitz egiten, irakasleak erantzun posibleak eman ditzake eta parte hartzera bultzatu: “Batzuk diote...”, “Norbaitek esango luke...”
3. Irakasleak ezin du presiorik egin. Itxaroten den erantzuna lortzen ez bada, berdin dio. Taldearen lantze mentala eta erantzun propioak dira garrantzitsuak, horrek balioko du finkatutako helburuak lortzeko.
4. Irakaslea ez da eztabaidan sartuko, gidatu, bideratu, suspertu baino ez du egingo. Iradokizunak egin ahal izango ditu, informazioa erantsi, nahasteak eta kontraesanak argitu, baina ikuspuntuetan ezingo da konprometitu.
5. Eztabaida amaitu baino lehen, ondorioren bat atera behar da edo eztabaidatutako gaiaren gainean nolabaiteko akordiora iritsi. Arrazoibideen laburpena egin eta ekarpen desberdinen alderdi positiboak atera arte, ezingo da eztabaida moztu.

Eztabaidan emaitza onak atera daitezke bilerak 45-50 minutukoak badira. Ahal dela, ez da bai edo ez erantzuteko galderarik egingo, horiekin ezin da-eta eztabaidatu. Ez da erantzun finkorik bilatzen, baizik eta loturak eta interpretazioak.

Gidatutako eztabaidak errazak dira gelan egiteko. Eduki orokorrak edo ikasketa-programa jarraitzen duten edukiak lantzeko oso egokia da. Ohiko ikasgaien ikasketak baino denbora gehiago hartzen du teknika honek. Baina, aldi berean, pentsamendu kritikoa pizten du, analisia, taldeko lana, elkar ulertzea eta tolerantzia.

2.4. Eztabaida-talde txikia

Kostua: baxua

Etekina: ertaina-altua

Eztabaida-talde bat sortuko da, gutxienez 5 kidez eta gehienez 20 kidez osatua. Modu informalean gai bati buruzko ideiak elkartrukatuko dituzte gutxieneko arau batzuk jarraituz:

- Denen interesekoa den eta aurreikusitako gai baten inguruan eztabaidatuko da. Gaitik ahalik eta gutxien aldentzen ahaleginduko dira.
- Ideien trukea nolabaiteko ordena logiko bat jarraituta egingo da, nahiz eta taldearen bat-batekotasuna errespetatuko den.
- Taldea koordinatzaile bat izendatuko du eztabaida gidatzeko. Kargua txandakakoa izango da. Zeregin hori irakasleak beteko du harik eta ikasleak gai izan arte.

Honako hau da dinamika parte-hartzaile horren prozesua:

1. Irakasleak ondo zehaztuko du eztabaidatuko den gaia edo auzia.
2. Taldekideek askatasunez adieraziko dituzte euren ideiak eta ikuspuntuak, gaitik aldendu gabe, ahal dela.
3. Irakasleak, beharrezkoa bada, egindakoa laburbilduko du.
4. Irakaslearen zeregin nagusia honako hau izango da: taldekide guztien parte hartzea bultzatzea. Ez du ideia pertsonalik adieraziko.
5. Akordio bidez edo adostasunez aterako dira ondorioak.

Komunikazioa errazteko, zirkuluan jartzea komeni da. Prozesuaren begirale bat egon daiteke taldean. Dinamika erraza da gelan egiteko. Eztabaidatzea gustuko duten taldeak helburuak araututa eta adostuta dituzten eztabaidetara bideratu daitezke.

Erreferentzia bibliografikoak

<http://lafundacion.edu.ar/wp-content/uploads/2012/11/Din%C3%A1micas-de-trabajo-en-grupos.pdf>
(kontsulta-data: 2018-02-21)

2.5. Zeharkako iradokizun bat edozein metodologiarentzat: dilema etikoak lantzea

Dilema etiko eta moralak baliabide ezin hobea dira ikasleen irizpide etikoa osatzeko eta daukaten balioen hierarkiaz jabetzen laguntzeko.

Hala gertatzen da gai bati buruz, gertakari historiko bati buruz –berdin dio bizi izan duten gertakari bat bada edota hark gizartean izan dituen ondorioen berri zuzenean izan badute– gogoeta egiteko eskatzen diogunean.

Zalantzarik gabe, dilemen eztabaidak motibazio eta estimulazio gehiago sorrarazten du printzipio etikoen azalpen teorikoak baino.

Hona hemen dilemak lantzearen zenbait helburu:

- Norberaren balio-eskala ezagutzea, eta balio horien hierarkia ezartzea.
- “Enpatia” izeneko trebetasun soziala garatzea, hau da, beste pertsona baten lekuan jartzeko jakitea.
- Besteen iritziak eta jokabideak errespetatzea, gureak ez diren printzipioak eta balioak toleratzen ikastea.
- Arrazoiaren oinarritutako elkarrizketa bultzatzea, ikuspuntu desberdinei buruzko iritziak trukitzea.

-
- Judizio etiko-morala osatzea, jokabidearen etikari aplikatutako diskurtsoaren logika garatzea eraginez.
 - “Adimen emozionala” deitutakoa sustatzea, gatazkak konpontzeko arrazoibideak, sentimenduak eta emozioak integratuz.
 - Norberaren jokabideak eta iritziak arrazoitzea, giza-jokabideen konplexutasuna aztertzeko arrazoa erabilia.

Dilema etiko edo moralak lantzeko apartatu honetan azaldutako edozein metodologia erabil dezake irakasleak. Bateragarria da horiekin guztiekin eta erabil daitezkeen beste batzuekin ere.

Iturria/aldataua/kontsulta-data:2017-03-26 http://elarcadelasabiduria.com/dilemas_morales.htm

3. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Hitzaurrea

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdinean eta ukaezinetan oinarritzen direla.

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi.

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin.

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea.

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela.

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela.

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdinean ulertzea.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal hau egiten du, Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzen irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezkeen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetako herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. atala

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. atala

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inolako bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomia-erik gabea edo nolahalako burujabetasun-mugak dituena.

3. atala

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. atala

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

5. atala

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

6. atala

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortzeko eskubidea.

7. atala

Gizon-emakume guztiak berdina dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legeko babesa izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

8. atala

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarriko eskubiak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurso eraginkorra jartzeko eskubidea.

9. atala

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10. atala

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikeriarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitze-ko, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertze-ko.

11. atala

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatu-ko zaizkio.

2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

12. atala

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatua, familia, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legeko babesa izateko eskubidea.

13. atala

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

14. atala

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.
2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

15. atala

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.
2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

16. atala

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia aratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.
2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

17. atala

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.
2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

18. atala

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakar-kak nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

19. atala

Gizabanako guztiek dute iritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

20. atala

1. Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

21. atala

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.

2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

22. atala

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa.

23. atala

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.
2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.
3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.
4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

24. atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldianaldian ordaindutako oporrak izatekoa.

25. atala

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.
2. Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26. atala

1. Pertsona orok du hezkuntza eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.
2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iharduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.
3. Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

27. atala

1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.

2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egille diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

29. atala

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.
2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.
3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurka.

30. atala

Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

Iturria: <http://www.unidosporlosderechoshumanos.es/what-are-human-rights/universal-declaration-of-human-rights/>